

IBAN ZALDUA & MICE

*Desamodioak iraganaren
inpugnazioa dakar*

–bonus track–

Donostia, Literaktum,
2022ko azaroaren 16an

Ia-ia lehenengo unetik ezagutu du, esaldiak gehiegi luzatzen dituenen tartekatzen hasten den inflexio aldrebes horiengatik, eta r-a ahoskatzeko bere forma bereziagatik, ez dena zehazki erremereena, baina hurbiltzen zaiona. Hasierako agurren ostean azalpenetan korapilatu da, konpainiaz aldatu nahi duela kontatu dio, xehetasun gehiegiz, eta horregatik errekonozitu du, luze hitz egin diolako, eta sorpresak are luzeago aritzeko aukera eman dio gainera, Maitek ez duelako, halakoetan ohi duen bezala, berehala moztu bere solaskidearen jarioa, jarraitzen utzi dio, gertatzen ari zaionaren –gertatzen ari *zaienaren*– posibilitateak matematikoki zenbatekoak izan litezkeen kalkulatu bitartean. Infinitesimalak, pentsatu du. Bon, oso txikiak. Edo, tira, agian ez horren txikiak ere: azken finean, euskaraz hitz egiten duen norbait eskatu du, eta ez dira hainbeste zerbitzua hizkuntza horretan galdegiten diotenak gas-konpainiari, eta are gutxiago enpresako *call center*ko langileen artean zerbitzu hori eman ohi dutenak, Maitek bezala.

Ados, agian aukerak uste baino gehiago dira. Baina, hala ere, kasualitate handiegia da. Beste txanda batean deitu zezakeen. Euskaraz aritzen den beste langileetako edozeini pasa ziezaioketen deia –nahiz eta Maitek uste duen bere lankideek, hala ahobiziek nola belarriprestek, berari pasatzen dizkiotela euskarazko deia guztiak, sistematikoki, hain aritzen dira trakeski–.

Konforme, aukera asko zeuden. Baina Besteak erabaki zezakeen gestioa gaztelaniaz egitea ere. Edo bera ez dagoen txandan deitzea. Edo gas-konpainiaz ez aldatzea. Kasualitate handiegia izaten jarraitzen du.

Halako batean, Bestea gehiegi hitz egiten ari dela erabakita, eta baita haria ere pixka bat balduta daukalako, momentu batez gelditzeko eskatu dio.

–Barkatu, barkatu... zarata pixka bat dago linean eta ez dut ondo entzun amaieran esan didazuna. Kontatu ahal izango zenidake, mesedez, zein den zure deiaren zergatia? Ahalik eta modu laburrenean, ahal dela.

Nahita aritu da itzulingeruetan: Maite normalean askoz ere sikuagoa eta eraginkorragoa izaten da, harira joaten diren telefonista horietakoa, baina oraingoan Besteak bere ahotsa ezagutzea nahi du, hura ere jabetzea gertatzen ari zaien mirari txikiaz, edo karmaren jokaldi makurraz. Silabak tenkatu ere egin ditu, norekin ari den ohartu dadin Bestea. Maite konturatu bada, halabarrez konturatu beharko da, linearen beste muturretik, Bestea.

Baina Besteak ez du horren imintziorik egin, eta berriro ekin dio hasieratik, ez aurrekoan baino bertsio askoz ere kondentsatuagoan: haren orain arteko gas-konpainiaren hurrengo fakturen beldur zirela etxean –azken hilabeteetako kontsumoa zehaztu dio kilowatt-ordu, gigajoule, metro kubo eta eurotan neurtuta–, adiskide batzuek gomendatu zieten azken errekurtsoko tarifadun enpresa batera pasatzea –adiskide horien izen-abizen guztiak aletu dizkio–, eta aldaketa hori egiteko deitu duela, horixe delako adiskide haietako gehienek hautatu zuten

konpainia –gutxiengo batek beste bat nahiago izan zuen arren, eta hori ere aipatu du halaber,–.

Maitek ezin du sinetsi: Besteak ez du oraindik ere errekonozitzen. Ez du ezta arrastorik ere norekin ari den hitz egiten, zeinekin eta berarekin bizitza bost urte luzez konpartitu zuen emakumearekin. Egia da ia bi hamarkada pasatu direla harrezkero, eta azken hilabeteak elkarrekin infernu bat suertatu zirela, haiena ez zela batere banaketa baketsua izan. Baina ez da posible bere ahotsa ahaztu izana: ahotsa, musikaren antzera, gure burmuinaren konexio sakonenetara bizkorren iristen den gailu hori. Maitek gogoratu du Besteak horretaz gaztigatu zuela, apurtzen bazuten ez zela haien artean ezer geratuko, ez zuela sinesten “adiskideak-izaten-jarraituko-dugu” moduko adostasunetan, hark kito egiten zuenean kito egiten zuela, eta kito. Eta egia da, Euskal Herria txikia izanda ere, urteak eta urteak zeramatzatela elkarren berri izan gabe, eta Maitek berak ez zuela Bestea bilatzeko inolako ahaleginik egin. Ez baitu harenganako sentimendu berezirik gordetzen. Izan ere, “Bestea” deitzen zion, bere buruarekin ari zenean, eta baita iraganeko maitasun istorio hura bere adiskideren batekiko konfidentziaren batean agertzen zenean ere, ironia ez gutxiz gehienetan. Baina harreman hartako bizipen onez ere gogoratzen da, eta, zer esanik ez, Bestearen ahotsaz. Ez dio uko egin nahi hori guztiari, eta amorratzen hasia da Besteak erakusten duen errekonozimendu faltaz.

Une batez Maitek erabaki du esango diola zein den. Baina, egoskor, ideia alde batera utzi eta berriro eten dio fakturen, zenbakien eta kontagailuen inguruko xehetasunen kontakizuna, eta atzera hitz egin dio, eztarria leundu ondoren, hoskera ahalik eta gehien *gaztetzeko* ahalegin agian hutsalean.

–Dena dela, konpainiaz aldatzea komeni zaizun ala ez jakiteko, lehenengo zure kontsumoaren ebaluazio konparatibo bat egin beharko genuke. Zure etxean oso hozberak ez bazarete, are hotza gustatzen bazaizue, badagoelako jendea hotza gustuko duena, agian ez zaizue horrenbeste komeni tarifa berrira pasatzea, ez hemen, ezta beste konpainia batean ere... .

Maitek badaki profesionaltasun eza erakusten ari dela, ikaragarri: ez bakarrik lan egiten duen gas-konpainiarekiko kontratu berri baten aukera zalantzan jartze hutsagatik –enpresaren eskuliburu guztien aurka doan zerbit–, baizik eta, nahiko trakeski, hotzarena aipatzean kontu pertsonal bat lerratu duelako elkarrizketan, Bestearen memoria berpiztea helburu. Izan ere, erlazioak iraun bitarteko bost urte haietan zehar, Lautadako etxetxo batean pasatu zituzten lehenengo hiru urteak, adiskide batek, etxea zaintzearen trukean, ia musu truk alokatu baitzien: horiek izan ziren beren harremanaren garairik onenak, oposizioetarako ikasten eta ordezkapenak tartekatzen ibili bitartean hantxe bizi izan zituztenak, dutxatik ateratzen zen ur zirrirta mehea luxu bat iruditzen zitzaien garaia, eta etxe barruan, bataren azpian, jertse lodi bat edo are bi eraman behar zituztenetakoa, hain zen estua zeukaten butanozko berogailu bakarraren eragin-erradioa. Baina haiei ez zitzaien axola, hotza gustatzen zitzaie la erabaki zutelako, muxu hotzek haien pasioa areagotzen zutelako, hotzak elkarrekin edredoiaren azpian egoteko uneak biderkatzen zituen bezalaxe. Hura izan baitzen urte haietako haien ikurra, hotza, hotzaren eta pasioaren arteko lotura antitetiko eta –biak ziren irakurle porrokatuak–

kasik literario hura. Hiriko pisu batera aldatu zirenean ihes egin ziena, edo hori zen behintzat Maitek zerabilen interpretazioa bien arteko hausturaz hausnartzen edo, hobe esanda, teorizatzen zuenean: bideoak irratiazen izarra legez, berogailu zentralak hil zuela haien maitasuna, Hotzaren, Izotzaren Izakiak eta Maitaleak zirelako, Betiko.

Bai, Maitek arrandia sentimentalerako joera dauka, batzuetan.

Baina Besteak, bere erre bitxi horiek ahoskatuz eta mendeko esaldietan ezinbesteko dituen ohiko inflexioak eginez, Maiteren iradokizunari muzin egin eta ezezkoa eman dio, barrez ia, ea nola bururatzen zaion, hotza gustatzea, inori ez zaiola hotza gustatzen, izan ere bera eta bere senarra eta seme-alabak, justu alderantziz, oso hozkilak direla, erruz erabiltzen dutela gasezko berogailua neguan, eta baita udazkenean eta udaberrian ere, hogei gradutan jartzen dutela termostatoa, gutxienez, horregatik hain zuzen daudela kezkatuta etor litezkeen fakturekin, aldaketa klimatikoa gorabehera hirian egiten duen hotzarekin ezin dela bizi.

Maitek ezin du sinetsi. Ez soilik Bestea gizon batekin ezkondu izana, azkenean: hori uler lezake, ez du kasik ezta traizio kontsideratzen, zitekeenaren barruan sartzen zen; bizitzako norabide aukeren arteko bat gehiago zen, azken batean, eta ez dio apenas minik egin. Baina hotzarena, haien Hotz hura ahaztu izana, eta amu hori botata ere Besteak Maiteren ahotsa identifikatu gabe jarraitzea, hori barkaezina iruditzen zaio: horrela ezabatu al daiteke iragan konpartitu bat, osorik, sustraitik? Ez zaio Besteari oroitzapen bat ere gelditzen? Hori al da desamodioaren ordaina, iraganaren inpugnazio oso eta erabatekoa? Duela gutxi Angel Errori irakurri zizkion bertso-lerro hauek: «Gure maitasuna, konstante iraungo duena, / zurea eta nirea historia denean ere», eta Maitek bere koadernoan apuntatu zituen, egia sakon bat adierazten zutelakoan. Ez zen bereziki Besteaz oroitu, orduko hartan, zerbait unibertsalagoaz baizik. Baina orain iruditu zaio poetaren maximoa ere ezeztatzen duela gertatutakoak.

Besteak tarte batez hitz egiten jarraitu du, gas-konpainiako langilearen mututasun bitxiari jaramonik egin gabe. Azkenean, Maitek etsi, eta galdera fatidikoa egin dio.

—Hornidura aldaketa gauzatzeko titularraren izen-abizenak, helbidea, kontratuaren kontu-zenbakia eta, inportanteena, CUPS kodea osorik beharko nituzke. Aurrean duzu zure oraingo konpainiaren azken faktura?

Baietz esan dio Besteak, eta, datuak aletuz doan bitartean, Bestea izateari utzi dio, izen-abizenak ez direlako inondik ere Bestearenak, eta ahotsa, orain ohartzen ari da, oso antzekoa bai, baina ez da zehazki berbera, ñabardura ezberdin bat du tinbrean, hor, oso atzean, sabaikarrietan batez ere, eta Maitek, gutzia txukun-txukun ordenagailuan tekleatzen duen bitartean, ez daki arindua sentitu behar duen, ala larritasuna, baina tekleatzen jarraitu du, oso modu profesionalean, eta tekleatzen, eta tekleatzen, hatzak bero sentitu arte, eta baita belarriak ere, entzungailu mikrofonodun horrek sekulako beroa ematen diolako. Gorroto du belarrietako bero hori, bertatik isurtzen zaizkion izerdi tanta lodiak. Baina nola egon daiteke beroa nahiago duen jendea, hotza askoz ere hobea denean, edozein ikuspuntutatik begiratuta.